

**ADMINISTRAZIO KLAUSULA
PARTIKULARREN ETA
XEHETASUN TEKNIKOEN
PLEGUA, GARBIKETA
ZERBITZUA KONTRATATZEKO.
(Enplegu zentro bereziei
erreserbatuak)**

Indizea

01. Kontratuaren xedea.	4
02. Izaera erreserbatuko kontratua.	4
03. Betearazpen epea.	5
04. Lizitazio aurrekontua.	5
05. Ordaintzeko era.	6
06. Prezioak berrikustea.	7
07. Bermeak.	7
08. Kontratua betearaztea.	7
09. Betearazpeneko baldintza bereziak.	8
10. Esleipendunaren oinarritzko betebeharrak.	9
11. Bermearen onarpena eta epea.	12
12. Betebeharrak ez betetzea eta zigorrak.	13
13. Kontratua suntsiarazteko kausak.	15
14. Esleitzeko prozedura.	15
15. Esleitzeko irizpideak.	15
16. Esleitzeko irizpideak baloratzea.	15
17. Kontratatzeko beharrezko betekizunak.	18
18. Proposamenak aurkeztea.	19
19. Agiriak hautatzea eta eskaintzak zabaltzea.	21
20. Esleipena.	22
21. Formalizazioa.	24
22. Kontratua aldatzea.	25
23. Izaera, araubide juridikoa eta eskumena duen jurisdikzioa	25
1. eranskina. Zehaztasun teknikoak	27
2. eranskina. Proposamen ekonomikoaren eredia.	37
3. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia.	38
4. eranskina. Kontratak subrogatu beharreko langileak.	39

01. KONTRATUAREN XEDEA.

Orri hauen arabera gauzatuko den kontratuaren xedea Juan Crisóstomo de Arriaga-Bilbao Orkestra Sinfoniko Fundazioaren (aurrerantzean, BOS) lokal eta egoitzak garbitzea da, xehetasun teknikoekin bat etorritz.

Kontratuak dirauen bitartean, esleipendunari eskatu ahal izango zaizkio ezohiko garbiketa zerbitzuak ematea. Enpresak nahitaez bete beharko ditu, eta eskaintza egiterakoan adierazitako prezio unitarioetan ordainduko zaio.



Bete beharreko beharrizanak: Kontratazio honen bitartez, BOSen lokal eta egoitzak garbitzeko zerbitzua kontratatu nahi da; izan ere, BOSek ez du horretarako berezko baliabiderik.

02. IZAERA ERRESERBATUKO KONTRATUA.

Kontratu honen ezaugarri teknikoak direla-eta, Enplegu Zentro Berezien (EZB) prestazioa eman dezakete, eta, beraz, BOSek erabaki du bat egitea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko (SPKLTB) bosgarren Xedapen Gehigarrian ezarritako aukerarekin, eta kontratu hau **Enplegu Zentro Berezien kalifikazioa lortu duten eta horretarako baldintzak betetzen dituzten enpresei erreserbatutako kontratutzat** hartzea.

EZBak, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeak sortutako figura, laneratzeko erakundeak dira, eta minusbaliotasunak dituzten pertsonen oinarrizko elementu integratzailezt hartzen dira lanaren mundu arrunta deitutakoan. Hain zuzen ere, EZBek aukerak ematen dizkiete pertsona horiei, duten minusbaliotasunaren ondoriozko egoera pertsonalengatik ezin dutenean lan-jarduerarik egin ohiko baldintzetan.

EZBak enpresak dira, eta euren helburu nagusia ekoizpen-lana egitea da, merkatuko operazioetan modu erregularrean parte hartuz. Euren helburua da ordaindutako enplegua bermatzea minusbaliotasunen bat duten langileentzat, bai eta, langile horiei dagokienez, doikuntza pertsonal zein sozialeko zerbitzuen prestazioa ere.

Hauek dira EZBen funtsezko ezaugarriak:

- Edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu, izan daiteke EZBren titularra. Era berean, gaitasun juridikoa eta enpresaburu izateko gaitasuna duten ondasunen komunitateak ere EZBren titularrak izan daitezke (merkataritza-sozietateak, elkarteak, fundazioak eta abar).
- EZBetako plantillak, gutxienez %70ean, minusbaliatuz egon behar dira osatuta, eta pertsona horiek, gutxienez, lanerako %33ko murrizketa izan behar dute. Horrek ez dio kalterik egin behar minusbaliatuak ez diren langileen kopuruari, kopuru hori jardueraren garapenerako funtsezkoa denean.
- EZBak minusbaliotasunak dituzten pertsonak ohiko enpresetan laneratzeko bitarteko gisa hartzen dira, eta hori da sektore horren laneratze-politikaren helburu nagusia. Gaia arautzen duen araudiak dio EZBak benetako enpresak direla, eta, beraz, euren sektoreko beste edozein enpresari eragiten dioten arau eta baldintza berberetan kudeatu behar dituztela euren buruak.

03. BETEARAZPEN EPEA.

Kontratuaren iraupena **lau (4) urtekoa** izango da, sinatzen denetik zenbatzen hasita.

Luzapena: Kontratua berariaz luzatu ahalko da, hori bukatu aurretik bi aldeak ados daudelarik. Edozein kasutan, luzapena edo luzapenak, bakarrik edo batera, ezingo dira 24 hilabetetik gorakoak izan.

Edozein kausa dela medio, kontratua bide arrunt edo ez arruntetik hautsiko balitz, zerbitzuak jarraituko duela bermatzeko helburuarekin, BOSeko kontratazio batzordeak kontratuaren derrigorrezko luzapena adostu ahal izango du. Luzapenak kontratu berria esleitu arte iraungo du, baina inoiz ez sei hilabete baino gehiago.

04. LIZITAZIO AURREKONTUA.

A) KONTRATUAREN KALKULATUTAKO BALIOA.

Publizitate eta esleipen-prozedura aplikagarriaren ondorioetarako, ehun eta hirurogeita lau mila hirurehun eta hamabost euro eta hirurogeita hemeretzi zentimokoa **(164.315,79 €)** da kontratuaren kalkulaturako balioa, hasieran ezarritako epean eta luzapenean.

B) URTEKO GASTUAREN KALKULATUTAKO GEHIENEZKO AURREKONTUA.

Jarraian, kontratuaren urteroko bakoitzaren gastuaren kalkulaturako gehienezko aurrekontua jasotzen da:

- Lehenengo urtea: Hogeita sei mila hirurehun eta hamabost euro eta hirurogeita hemeretzi zentimo. **(26.315,79 €)**
- Bigarren urtea: Hogeita sei mila zortziehun eta berrogeita bi euro eta hamaika zentimo. **(26.842,11 €)**
- Hirugarren urtea: Hogeita zazpi mila hirurehun eta hirurogeita hamazortzi euro eta laurogeita hamabost zentimo. **(27.378,95 €)**
- Laugarren urtea: Hogeita zazpi mila bederatziehun eta hogeita sei euro eta hogeita hamabi zentimo. **(27.926,32 €)**

Luzapena egonez gero, luzapenerako eperako prezioa esleipendunak azken urterako (4.a) eskainitakoa izango da.



Denbora-unitateei (orduak) dagozkien aleko prezioa ere adierazi beharko dute lizitatzailleek proposamen ekonomikoan, eta, hala badagokio, BOSek eskatutako ezohiko zerbitzuak tarifa horren arabera kobratuko dira. Ondorio horietarako, lizitazioaren gehienezko prezio unitarioa **hamabost (15) euro ordukoa** da.

Aipatutako prezioak beherantz hobetu ahal izango dituzte lizitatzailleek.

Aipatutako kantitate hauek guztiak **BEZ GABEKOAK** dira.

05. ORDAINTZEKO ERA.

Garbiketa zerbitzu arruntengatik, kopuru finkoa ordainduko da hileroko. Kopuru hori esleipenaren zenbateko osoa zati hamabi hileroko eginez lortuko da.

Gainera, BOSek alde zuzenetik eskaturik, ezohiko garbiketa zerbitzuak eman izan balira, emandako ezohiko zerbitzuen fakturan aurreko hilabete naturalean emandakoak gehituko dira, eta ezohiko zerbitzu guztiak eta ordu eraginkorren kopurua jasotzen dituen txostena erantsiko zaio; BOSek txosten hori jaso eta hamar (10) egunera onartu beharko du.

Kasu horretan, zerbitzu horiengatik ordaindu beharreko prezioa emandako ordu kopurua enpresa kontratistak eskainitako prezio unitarioetara aplikatuz aterako da.

Ondorio horietarako, enpresa kontratatzaileak hilabeteko faktura igorri beharko du hurrengo hilabeteko lehen hamabost egun naturaletan.

06. PREZIOEN BERRIKUSPENA.

Kontratu honetan egokia da prezioen berrikuspena.

Justifikazioa: Kontratuaren kostuen garapena eskainitako prezioaren barruan dago; beraz, baztertu egiten da prezioen berrikuspenaren teknikaren bidez bestelako faktore zuzentzaileak sartzea.



07. BERMEAK.

Kontratuaren esleipendunak, hartutako obligazioak beteko dituela bermatze aldera, behin betiko bermea osatu beharko du derrigorrez, esleipenaren zenbatekoaren %5i dagokion zenbatekoan, BEZ sartu gabe.

Aipatutako bermea eratzeko epea hamabost egun naturalekoa izango da, kontratuaren esleipenaren berri eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta prezioaren erretentzio moduan edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB) onartzen duen azaroaren 24ko 3/2011 Errege Dekretu Arautzailearen 96. artikuluan ezarritako edozein modutan eratu ahal izango da.

Bermeen itzulketa (osoak edo partzialak, hala beharko balitz), bermearen epea amaitu ostean egingo da, esleipendunak bere kontratu-betebehar guztiak bete ostean. Eta hori, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 97. artikulua ezarritakoaren arabera.

08. KONTRATUA BETEARAZTEA.

Kontratuaren betearazpena kontratistaren arrisku eta galdu-gordean egingo da.

Kontratua plegu honetan biltzen diren klausulen arabera beteko da, eta hala behar balitz, txostenean bildu diren xehetasun teknikoaren arabera. Betiere, BOSek interpretatu ditzan kontratistari ematen dizkion jarraibideekin bat etorriz.

09. BETEARAZPENENKO BALDINTZA BEREZIAK.

Ez azpikontrataziorik ez lagapenik ez subrogaziorik: Kontratuaren ezaugarriak eta kontratuaren helburu soziala kontuan hartuta, enpresa esleipendunak bere kabuz eskaini beharko du zerbitzua, eta berariaz debekatuta geratuko da prestazio nagusia edozein modutan azpikontratatzeko aukera, bai eta kontratua laga edo subrogatzea ere.

Gizarte, lan eta ingurumen araudia betetzea: Kontratatzaileak, kontratua betearaztean, gizarte, lan eta ingurumen alorrean aplikagarriak diren obligazioak beteko ditu; kontuan hartuko dira Europar Batasunaren zuzenbidean, zuzenbide nazionalen eta hitzarmen kolektiboetan ezarritako obligazioak, baita ingurumen, gizarte eta lan alorrean Estatua lotzen duten nazioarteko zuzenbideko xedapenak ere. Era berean, eskaintza



egiteko orduan, araudi hori aplikatzen duela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena egingo du, erantsitako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN arabera. (3. eranskina)

Hitzarmen kolektiboa adierazteko obligazioa: Esleipendunak izatekotan, lizitatuzaileek aplikagarria den hitzarmena jakinaraziko diete kontratuaren xedea den jarduera gauzatzen duten langileei; era berean, kontratua esleitu ondoren langilei horiei aplikatu zaizkien lan-baldintzei buruzko behar besteko informazioa eman beharko du. Halaber, eskaintza egiteko orduan, hitzarmen kolektiboa adierazteko eta lan-baldintzei buruzko informazioa emateko obligazioaren erantzukizunpeko adierazpena egingo da (esleipenduna izatekotan), erantsitako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN arabera (3. eranskina).

Hitzarmenean jasotako ordainsaria ordaintzeko obligazioa: Esleipendun izatekotan, kontratua betearaziko duten langileei indarrean dagoen eta kontratu hau arautzen duen azken hitzarmen kolektiboak (enpresakoa, sektorekoa edo lurraldekoa, dagokionaren arabera) ezarritako baldintzak aplikatzeko obligazioa izango dute lizitatuzaileek, betearazpeneko baldintza berezi gisa; hori ez da eragozpena izango hitzarmen horretan xedatutakoaren gaineko hobekuntzak egiteko. Hain zuzen ere, aplikagarria den hitzarmen kolektiboan jasotako ordainsaria ordaindu beharko du kontratistak, langile bakoitzari dagokion sailkapen profesionalaren arabera, eta ordainsaria ezingo da hori baino txikiagoa izan. Era berean, esleipendun izatekotan, hitzarmenean jasotako ordainsaria ordaintzeko konpromisoa hartzen du enpresak, erantsitako ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENAREN arabera. (3. eranskina)

Subrogazioa: Ohartarazten da kontratazioa langile guztien lan-kontratuen subrogazioaren pean dagoela, beste kontrata batekoa izan arren, baldin eta kontratuaren xede den jarduera gauzatzen badu; enpresari berriak laneko eskubide eta obligazioak eta gizarte segurantzakoak subrogatu beharko ditu.

Esleipenduna enplegu-emaile gisa subrogatzeak ekarriko dituen lan-kostuak modu zehatzean aztertzeke xedez, kontratu honen subrogazioak eragiten dituen langileen kontratuen baldintzei buruzko beharrezko informazioa 4. eranskinean dago jasota.

Esleituko den kontratuaren xede den prestazioa egiten ari den eta ukitutako langileen enplegu-emailea den enpresak emandako informazioarekin osatu da aipatutako informazio hori.

Subrogaziorako obligazioa dagoen kasuetan, zerbitzua ematen hasi aurretik, horietarako bideratutako langileen zerrenda aurkeztu beharko du esleipendunak, bere eskaintzan jasotako lanpostuen zerrendaren



arabera, BOSek edozein momentutan identifikatu ditzan kontratuan zehaztutako lanak betearazten dituzten pertsonak. Era berean, kontratistak ezingo ditu ordeztu bere eskaintzan ezarritako langileak, ezta kontratazio berriak ere, BOSen berriazko baimenik gabe.

10. ESLEIPENDUNAREN OINARRIZKO BETEBEHARRAK.

NAGUSIAK: Esleipendunak ordaindu beharko ditu kontratatutako zerbitzua osorik betetzeko egin beharreko gastu guztiak: kontratua prestatzeko eta formalizatzeko izapideak, materialak eta instalazioak, bitarteko tresnak, eskulana, Gizarte Segurantza, zergak, mota guztietako ardurak eta aseguruak eta esleipena duen enpresari dagozkion edozein motatako beste zama eta betebeharrak guztiak (esleipena egiten denean horiek guztiak onartzen baititu); baita, kontratutik edo lizitazioan parte hartzetik eratorritako beste guztiak ere.

Esleipendunari dagokio kontratua betearazteko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia ofizialak zein partikularrak eskuratzea.

Esleipena duen enpresak diru gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe eskaini beharko ditu kontratuaren egoki garatu eta betetzeko beharrezko zerbitzuak: laneko bileretara edo informazio bileretara joatea, etab. Betebeharrak hori bermepeko sasoia amaitu arte mantenduko da.

ARDURAK ETA KALTEAK: esleipenduna izango da egiten dituen lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazio eta zerbitzuen arduraduna. Era berean, kontratua betetzeari dagozkion ekintzak egiterakoan sortzen diren kalteen erantzule ere izango da, SPKLTBren 214. artikulua dionarekin bat etorritik.

Bermearen indarraldia amaitu arte, esleipena duen enpresaren erantzukizuna izango dira kontratatutako lanak eta hauetan egon daitezkeen akatsak. Gainera, BOSeko arduradunek lanak egiten egon diren artean ikuskatzea edo frogak, balorazioak zein zatikako egiaztagiriak onartzea ez da izango salbueslea eta ez dio esleipena duen enpresari inolako eskubiderik emango.

LAN-KONTRATUKOAK: Esleipena duen enpresak kontratu hau betearazteko garatu beharreko jardura guztiak egiteko langile nahikoa eta trebatuak izan beharko ditu. Esleipena duen enpresak erabakiko du zeintzuk diren bere langileek beharizanak, eta horiek ez du aurreko paragrafoan esandakoa aldatuko.



Edozein kasutan ere, behar den moduan koordinatuta, eskaini beharreko zerbitzuak epeen barruan eta ondo eskaintzeko gai dela frogatzen duen giza taldea izan beharko du.

Esleipena duen enpresak bere lan betebeharrak betetzea ez da BOSen ardura zuzena izango; ezta elkartasunezko ardura edo zeharkakoa ere. Era berean, ez dira haren ardura izango, kontratuak irauten duen bitartean edo kontratua amaitu ondoren, izan daitezkeen lan-kontratuen amaierekin. Esleipena duen enpresak hartu beharko ditu beregain hauetatik eratorri dakizkion ondorio juridikoak zein lan ondorioak; bai kontratu honek irauten duen artean, eta bai kontratua amaitu eta gero. BOSek ez du izango inolako lan arloko harreman juridikorik, zibilik ez administratiborik zerbitzuak eskaintzeko esleipena duen enpresako langileekin.

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA: Edozein kasutan, lan arriskuen prebentzioari dagokionez, indarrean dagoen legeak esaten dituen betebeharrak guztiak bete behar dira. Horretarako, kontratuak ezartzen duen zerbitzua eskaintzeko garatzen diren jardueretan lan arriskuen prebentzioetarako indarrean dagoen legedia egoki erabiltzeko legeak ezartzen dituen tresnak garatuko dira. Esleipena duen enpresa izango da esandako betebeharrak betetzearen arduradun bakarra. Hori dela eta, bera izango da betebeharrak ez betetzearen edo txarto betetzearen ondorioz gertatu daitezkeen arduradun. Enpresa esleipenduna derrigortuta dago LAPerako arauak Euskalduna Jauregian edo zerbitzua garatzen duen beste lekuetan betetzera.

ZIGORRAK LAN-HARREMANEN ETA LAP-EN ALORREAN: Esleipendunak, kontratua betearazteari lotutako ekintzei dagokienez, lan-harremanen (banakakoak edo kolektiboak) edo LAPen alorrean ezartzen dioten edozein zigorri buruzko informazioa eman beharko dio BOSi aldian-aldian, baita horren kontra aurkeztutako errekurtsioei eta horien ondoriozko ebazpenei buruzko informazioa ere.

DATU PERTSONALAK: Esleipena duen enpresak, hala behar duelako, kontratua betetzeko beharrezkoak zaizkiolako, automatizatutako izaera pertsonaleko datuak erabili beharko balitu, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dioenari eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeari erreparatuta egingo du; izaera pertsonaleko datuen babesari eta ezarpen horiek garatzen dituzten arauak biltzen baitituzte.

Esleipena duen enpresak ezingo ditu ezarri edo erabili kontratua dela eta automatizatuta dituen izaera pertsonaleko datuak kontratuan agertzen ez diren helburuetarako.

Kontratuak eskatzen duen prestazioa bete ondoren, erabilitako izaera pertsonaleko datuak BOSi eman



beharko zaizkio. Esleipena duen enpresak desegin egingo ditu dituenak ez baldin badu BOSen idatzizko baimenik lortzen etorri daitezkeen zerbitzu berriak egiteko. Kasu horretan, bost urtean gorde ahal izango ditu datuak dagozkien segurtasun baldintzekin.

SEKRETU PROFESIONALA ETA ISILPEKOTASUNA: Enpresa esleipendunak derrigorrez gorde beharko du sekretu profesionala, kontratuaren xede den lana egiteko orduan BOSEk emandako informazioari eta dokumentazioari dagokienez.

Ondorioz, debekatuta dago euskarri magnetikoetan zein ohikoetan jasota dagoen BOSen isilpeko informazioa erreproduzitu, banatu, komunikatu, eraldatu, helarazi edo beste edozein manipulazio egitea, inongo pertsona fisiko edo juridikori, dohainik edo diru trukean.

Obligazio hori kontratuaren xede diren jarduerak irauten duten bitartean eta jarduerak amaitu ostean egongo da indarrean, informazio hori jabari publikokoa izatera heldu arte edo, legezko beste arrazoiak direla-eta, isilpekotasuna amaitu arte.

Enpresa esleipenduna arduratuko da bere zerbitzuplean dauden langileek eta bertako kolaboratzaile edo azpikontratatu gisa ari diren pertsonen zein erakundeek isilpekotasun arloko obligazioak bete ditzaten.

Enpresa esleipendunak soilik kasu batean emango du isilpeko informazioa: kontratatutako jarduera eta zerbitzuak garatzeko orduan, langileek informazio hori behar dutenean.

Enpresa esleipendunak ez du BOSen isilpeko informazioa erabiliko bere helburuetarako, helburu pribatuetarako edo beste edozein helburutarako. Isiltasun profesionalaren betebeharra apurtzen badu, esleipena duen enpresak kalte ordainak ordaindu beharko ditu BOSi eta kaltetutako pertsonen egindako kalte-galerengatik.

11. BERMEAREN ONARPENA ETA EPEA.

Obrak bukatu eta, gehienez, hogeita hamar eguneko epean, kontratuaren helburuak betetzeko egintza formala eta positiboa egingo da.

Era berean, hirurogei eguneko epea finkatzen da, onarpen formala egiten den egunetik zenbatzen hasita, SPKLTBk ezarritako ondorioen berme gisa. Bermearen epe honetan, enpresa kontratista izango da egindako lanetan edo eskaintako zerbitzuetan agertu daitezkeen hutsen edo akatsen erantzulea. Bermearen



indarraldia amaitu arte, esleipena duen enpresaren erantzukizuna izango dira kontratatutako lanak eta hauetan egon daitezkeen akatsak. Gainera, BOSeko arduradunek lanak egiten egon diren artean ikuskatzea edo frogak, balorazioak zein zatikako egiaztagiria onartzea ez da izango salbueslea eta ez dio esleipena duen enpresari inolako eskubiderik emango.

Aipatutako epea BOSez arazorik jarri gabe igarotzen bada, esleipendunaren ardura indarririk gabe geldituko da.

12. BETEBEHARRAK EZ BETETZEA ETA ZIGORRAK.

Kontratuari dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu, esleipena duen enpresari zigor ekonomikoak ezarriko zaizkio aurretiaz entzunaldia eginda.

Betebeharren ez betetzeak oso larriak, larriak eta arinak izango dira euren larritasunaren, zerbitzuan izan duten eraginaren eta BOSi zein hirugarren pertsoneri eragin dizkieten kalteen arabera.

Esleipena duen enpresari zigorra ezarriko zaio, kontratuak ezarritako baldintzetako bat edo gehiago betetzen ez baditu:

A) Arau-hauste oso larriak:

- Kontratututako prestazioak etetea arrazoi handirik edo BOSez onartutako justifikaziorik gabe.
- Kontratua aldi baterako edo behin betiko bertan behera uztea aurretik baimenik eman gabe.
- Esleipena duen enpresari eskatu ahal zaizkion betebeharren eta, oso bereziki, betearazpenaren baldintza berezien arau-hauste larria eta/edo errepikatua.
- Arrazagatiko, sexuagatiko, erlijioagatiko, hizkuntzagatiko edo iritziagatiko bazterketari lotutako edozein ekintza.
- Egin beharreko lanen betearazpenean eta/edo zerbitzuetan atzerapenak izatea, horrek oso kalte larria eragingo balio BOSen irudiari.
- Hiru arau-hauste larri egitea.

B) Arau-hauste larriak:



- Izango duten eraginagatik oso larriak izango ez diren BOSeq emandako jarraibideak edo aginduak eta kontratuan dauden betebeharrak ez betetzea edo ez egitea.
- Kontratuaren xede diren lanen atzerapena.
- Arau-hauste arin bi egitea.

C) Arau-hauste arinak:

- Esleipena duen enpresari eskatu ahal zaizkion betebeharretan huts egitea edo arrazoirik gabeko arduragabekeria izatea.

Zigorrek: Enpresa esleipendunak arauak hausten baditu, honako zigorrak eta ondoren azaldutako zenbatekoak ezarri ahal izango dira:

- 1) Oso arau-hauste larriak: hilabeteko fakturaren %50ari dagokion zigor ekonomikoa, hutsegite bakoitzeko.
- 2) Arau-hauste larriak: hilabeteko fakturaren %25ari dagokion zigor ekonomikoa, hutsegite bakoitzeko.
- 3) Arau-hauste arinak: hilabeteko fakturaren %5ari dagokion zigor ekonomikoa edo ohartarazpena, hutsegite bakoitzeko.

BOSen Zuzendaritzari dagokio, edo honek eskuduntza ematen dion organoari, kontratua hausteagatik zigorrak ezartzeko.

Esleipena duen enpresak arau-hauste larriak edo oso larriak egiten dituenean, BOSeq aukeratu egin ahal izango du kontratua haustea edo goian azalduko zigorrak ezartzea.

Zigorren zenbatekoak, normalean, enpresa esleipendunari ordaindu beharreko fakturretatik kenduko dira.

Zigorrek ez dute salbuetsiko esleipena duen enpresak eskainitako zerbitzuengatik hirugarren pertsoneri edo BOSi egindako kalte-galerak ordaintzea. Zerbitzutik eratorri daitezkeen kalte ordainak ere, berak ordaindu beharko ditu.

13. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLTBren 223. eta 308. artikuluetan agertzen direnak izango dira.

14. ESLEITZEKO PROZEDURA.

Kontratu hau **prozedura ireki** bidez esleituko da, eta tokiko egunkari nagusietako bitan argitaratuko da.

Era berean, BOSen kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da lizitazioa; honako atari informatikoaren edo webgunearen bidez sartu ahal izango da bertara: www.bilbaorkestra.eus

Leku horretan bertan, pleguak eta dokumentazio osagarria (hala badagokio) egongo dira eskuragarri.

15. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak (kontratua esleitzeko oinarri gisa hartu behar dira) honakoak dira:

- a) **Formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak**60 puntu arte
- b) **Formula bidez kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideak**40 puntu arte

16. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK BALORATZEA.

16.1. Formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak.

Prezioa: gehienez ere, 60 puntu.

- 1) Ohiko zerbitzuaren prezioa: gehienez 58 puntu emango dira.

Eskaintzak beheranzkoan egingo dira, eta ezingo da kontratuaren urte bakoitzerako zehaztutako gehienezko zenbatekoa gainditu (plegu honen 4.B art.).

Prezioa baloratzeko, kontratuko lau urteak gehituta lortutako zenbatekoa hartuko da aintzat, eta aurrerago adierazitako formularen arabera baloratuko da.

2) Ezohiko zerbitzuen prezioa (orduka): gehienez 2 puntu emango dira.

Kontzeptu bakoitzaren puntuazioa honakoaren arabera kalkulatu da: puntuaziorik handiena eskaintza ekonomiko merkeenari emango zaio, eta gainerako eskaintzak alderantzizko hiruko erregelaren arabera puntuatuko dira, formula honekin:

$$\text{Puntuazioa} = (\text{eskaintzarik merkeena} / \text{eskaintza}) \times \text{puntuaziorik altuena}$$

Eskaintza ezohikoak edo neurritz kanpokoak: Zerbitzu arrunterako prezioan, balio ezohikotzat edo neurritz kanpokotzat hartuko dira onartutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino bost (5) ehuneko-unitate baino txikiagoak diren guztizko zenbatekoak.

Balio ezohikoak edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzen kasuan, SPKLTBren 152.3 artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

Kasu guztietan, justifikazio gabekotzat joko dira balio ezohikoak edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzak; beraz, eskaintza baztertzeko arrazoia izango da aplikagarria den hitzarmen kolektibotik eratorritako langileen ordainsaria baino txikiagoa den orduko ordainsaria eskaintzea.

Prezioa baloratzeko orduan, balio ezohiko edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzak onartuko dira, baldin eta, balio horiek justifikatuta, kontratazio Organoak alde aurretik onartu baditu.

16.2. Formula bidez kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideak.

Lizitatuzaileek zerbitzuaren eta eskura jarritako baliabideen inguruko antolakuntzari eta garapenari buruzko MEMORIA bat aurkeztuko dute. Memoria horrek honako atal hauek jasoko ditu:

- a) Egin beharreko lanaren deskribapen zehatza.
- b) Garbiketa-lanen plangintza.



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

- c) Lan-metodologia.
- d) Zerbitzua emateak barne hartzen dituen giza baliabideak. Koordinazioa, kudeaketa eta kontrola.
- e) Zerbitzua emateak barne hartzen dituen baliabide materialak eta teknikoak.

Hauxe baloratuko da:

- 1) Gehienez ere, 15 puntu. Aurkeztutako memoria teknikoaren kalitate teknikoa, zerbitzuaren deskribapenari, garbiketa-lanen plangintzari eta lan-metodologiari dagokienez.

Honakoak ezarri direla egiaztatzen duten ziurtagiriak baloratuko dira:

- Kalitatea kudeatzeko sistema, UNE-EN ISO 9001 arauarekin edo baliokidearekin bat etorritik, eraikinak, lokalak, esparruak eta industria-instalazioak garbitzeko jarduerarako.
 - Ingurumena kudeatzeko sistema, UNE-EN ISO 14001 arauarekin edo baliokidearekin bat etorritik, eraikinak, lokalak, esparruak eta industria-instalazioak garbitzeko jarduerarako.
 - Segurtasuna kudeatzeko sistema, UNE-EN ISO 18001 arauarekin edo baliokidearekin bat etorritik, eraikinak, lokalak, esparruak eta industria-instalazioak garbitzeko jarduerarako.
- 2) Gehienez ere, 15 puntu: Zerbitzuari atxikitako giza bitartekoak, arreta berezia jarrita egungo langileak kontserbatzean, eta zerbitzuaren arduradun bat bertan egotea, garbiketa egiten den bitartean.
- 3) Gehienez ere, 10 puntu: Zerbitzuari atxikitako bitarteko material eta teknikoak, egokitasuna, kopurua eta erabilera-efortzua minimizatzea kontuan hartuta.

Adierazitako irizpide bakoitzean, puntuazioa honako baremoaren arabera esleituko da:

- | | |
|---------------------------|--|
| - Eskaintza eskasa | Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %40ra arte |
| - Eskaintza nahikoa | Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %50era arte |
| - Eskaintza ona | Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %75era arte |
| - Eskaintza adierazgarria | Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %100era arte |

17. KONTRATATZEKO BEHARREZKO BETEKIZUNAK.

17.1. Kontratatzeke ahalmena.



Kontratatzeko prozedura honetan, ahalmen juridiko osoa eta jarduteko ahalmen osoa duten pertsona naturalek eta juridikoek parte hartu ahal izango dute, eta, orobat, ondo frogatzen badute ez daudela sartuta SPKLTBren 60.1 artikulua ezartzen dituen kontratatzeko debekuren batean.

Era berean, kontratua beren kabuz egin ahal izango dute, edo, bestela, baimendutako pertsona baten ordezkartzaren bidez, ondorio horretarako behar adina ahalorde emanaz. Pertsona juridiko baten ordezkartzan kideren bat azaltzen baldin bada, ordezkartzan jarduteko ahalmena duela egiaztatu beharko du, agiriak erakutsiz. Hala kasu batean nola bestean, ordezkariak lehen aipatu diren kontratatzeko ezintasuneko arrazoen eragina jasoko du.

17.2. Kaudimen ekonomiko eta finantzariora.

Kaudimen ekonomiko eta finantzariorako gutxienezko eskakizunak: Azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izandako urteko negozio-bolumena, gutxienez, 27.115,79 €-koa izan beharko da, hau da, kontratuaren gastuaren batez besteko urterokoaren baliokidea.

Hauxe egiaztatuko da: Negozioen urteko bolumena onartutako eta Merkataritza Erregistroan utzitako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, enpresaria aipatutako erregistroan inskribatuta baldin badago eta, horrela ez bada, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean utzitako kontuen bidez egiaztatuko da. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresariak inbentario-liburuak eta Merkataritza Erregistroak legeztatutako urteko kontuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.

(Oharra: urteko negozio-bolumena da merkataritzako legegian ezarritako urteko kontuen araudi-ereduen galera eta irabazien kontuan jasota dagoen negozio-zifraren zenbateko garbia)

17.3. Kaudimen tekniko eta/edo profesionala.

Kaudimen tekniko eta/edo profesionalerako gutxienezko eskakizunak: Kontratu honen xede diren lanen mota bereko lanak egiten esperientzia izatea, eta azken bost urteetan lan-bolumen handiena izandako urtean egiaztatutako metatutako urteko zenbatekoa 18.981,05 €-koa edo hortik gorakoa izatea, hau da, kontratuaren gastuaren batez besteko urterokoaren %70.

Hauxe egiaztatuko da: Azken bost urteotan egindako lan edo zerbitzu nagusien zerrenda egin beharko da, eta, bertan, zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko edo pribatua adierazi beharko dira. Egindako lan edo zerbitzuak eskumendun organoak emandako edo bisatutako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira, baldin eta hartzailea sektore publikoko erakundea bada; hartzailea subjektu pribatua bada, berak emandako



ziurtagiriaren bitartez, edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren aitopenen bitartez.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Proposamenak BOSen egoitzan aurkeztuko dira (Euskalduna Jauregia, Abandoibarra Etorbidea 4, 48011 Bilbao), **14:00ak arte, 2017ko ekainaren 8ra** arte.

Proposamena postaz bidaltzen duten lizitatuak justifikatu egin beharko dute noiz eta zein ordutan egin den posta-bulegoan bidalketaren ezarpena, eta egun berean telefaxa edo mezu elektronikoa bidaliz jakinarazi beharko diote kontratazio-organoari eskaintza igorri dela.

Bi betekizunak gertatu ezean, dokumentazioa ez da onartuko ezarritako epea amaitzen den egun eta orduaren ondoren jasotzen baldin bada. Hala ere, data horren ondoren hamar egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, hura inola ere ez da onartuko.

Proposamena entregatuta eta onartuta dagoenean, lizitazioa egin duen enpresak ezingo du berriro hartu, justifikatutako arrazoirik ez badago. Beste eskaintzarik ere ezingo du aurkeztu, ez berak bakarrik ez beste enpresa batzuekin aldi baterako enpresa bat osatuta. Ezingo du Aldi Baterako Enpresen Elkarte batean baino gehiagotan agertu. Aipatutakoa bete ezean, baztertu egingo dira enpresa horrek aurkeztutako proposamen guztiak.

Lizitatuak itxitako hiru gutun-azal aurkeztu beharko dituzte (A eta B), eta, gutun-azal bakoitzean, honakoa egongo da idatzita: **“BOSentzako GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”** (EEE soilik).

Gutun-azal guztiek egon beharko dute kanpoan identifikatuta honako datuekin:

GUTUN-AZALA:
GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA (EEE soilik)

Enpresaren izena:
Helbide soziala:
Helbide elektronikoa:
Harremanetarako telefonoa:

Faxa:
Ahaldunaren izen-abizenak:
Ahaldunaren sinadura:

A gutun-azalaren azpitulua **“ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA”** izango da.

Honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- a) Enpresa lizitatuak Enplegu Zentro Bereziaren sailkapena duela baieztatzen duten dokumentuak. Era berean, dagokion Erregistroan izena eman duela baieztatzen duten dokumentu eguneratuak aurkeztu beharko ditu.
- b) Erantzukizunpeko adierazpena, 3. eranskinean jasotako ereduarekin bat etorritik.

“B” gutun-azalaren azpitulua **“FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”** izango da.

Eskaintza ekonomikoa izango du, 2. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Honelako proposamenak ez dira onartuko:

- BOSek eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ezagutzea galarazten duten kontraesanak, omisioak, errakuntzak edo ezabaketak dituztenak.
- Aztertu edo onartu den dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- Lizitazioaren gehienezko tasa gainditzen dutenak.
- Proposamenaren zenbatekoan ageriko errakuntzak dituztenak.
- Ezarritako proposamen-eredua funtsezko eran aldatu dutenak.
- Lizitatuak onartzen duenean proposamena ezin dela bideragarria izan, errakuntzak edo funsgabetasunak daudelako.



Letretan eta zenbakietan adieraziriko eskaintzak bat ez datozenean, letretan ematen dena gailenduko da, salbu eta, agiriak aztertzearen ondorioz beste irizpide arrazional batzuk erabiliz, Kontratazio Batzordeak beste jarrera bat hartzen badu.

Jakinazten da eskaintza ekonomikoaren kontu-errakuntzek hura zuzentzea eragingo dutela.

Eskaintzak baztertzea eragiteko modukoak ez diren kontraesanak edo errakuntzak egonez gero, Kontratazio Batzordeak irizpide arrazionalen arabera jarrera hartuko du, BOSentzat abantailatsuen dena, betiere.

"C" gutun-azalaren azpiztitulua **"FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"** izango da.

Plegu honen 16.2 puntuan adierazitako memoria jasoko da; horrekin batera, kalitatea, ingurumena, segurtasuna eta laneko osasuna kudeatzeko sistema ezarri dela egiaztatzen duten agiriak (aurreko puntu horretan aipatutakoak) gehitu beharko dira.

19. AGIRIAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK ZABALTZEA.

"A" gutun-azala irekitzea

Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean, BOSe "A" gutun-azala irekiko du. Inolako akatsik aurkitzen badu, hiru laneguneko epea eskainiko du, lizitatuak akatsa zuzendu dezan.

"C" gutun-azala irekitzea

Ekitaldi publikoan, onartutako proposamenen "C" GUTUN-AZALA: "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA" irekiko da.

Ondoren, Kontratazio Batzordeak proposamenak baloratuko ditu, formula bidez kuantifika ezin daitezkeen esleipen-irizpideei dagokienez.

"B" gutun-azala irekitzea.

Formula bidez kuantifika ezin daitezkeen irizpideak baloratu ondoren, Kontratazio Batzordeak, ekitaldi publiko batean, irizpide horiei dagokienez eskaintza ekonomiko bakoitzari esleitutako puntuazioak jakinaraziko ditu.

Jarraian, onartutako proposamenen "B" GUTUN-AZALA: FORMULAZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI



BURUZKO DOKUMENTAZIOA irekiko da, eta haien barruko eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

Kontratazio Batzordeak esleitzeko proposamena egingo dio kontratazio-organoari, behin eskaintzen ebaluazio orokorra egin eta gero.

20. ESLEIPENA.

Kontratazio organoa BOSen Presidentetza izango da. Kontratua esleitzeko, kontratazio organoak honako kideek osatutako kontratazio batzorde baten laguntza izango du:

- BOSeko Patronatuko kidea.
- BOSeko zuzendari nagusia.
- BOSeko Administrazio burua.
- Idazkaria: BOSeko Patronatuko idazkaria.

Kontratazio organoak, beheranzko ordenan, baldintza-orri hauen karatulan adierazitakoaren arabera neurrigabeak edo anormalak diren aurkeztutako proposizioak sailkatuko ditu.

Kontratazio-organoak ekonomiaren aldetik eskaintza onuragarriena egin duen lizitatuzaileari eskea egingo dio, hamar egun balioduneko epean, eskea jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, beherago azaltzen den dokumentazioa aurkez dezan

- a) Kontratazioa egiteko legez eskatutako baldintzak justifikatzen dituen dokumentazio administratiboa:
 - Pertsona fisikoa: Proposamena egiten duen pertsonaren NANA edo hura ordeztuko agiri fedemailea.
 - Pertsona juridikoa: eraketako eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrerako egintza; haietan jarduera zehazten duten arauak ageri direla eta, hala dagokionean, erregistro ofizial egokian inskribatuta.
 - Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak: Beste pertsona baten izenean bertarutzen edo sinatzen dutenek ahalmen nahikoa erakutsi beharko dute, ondorio horretarako.
 - Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa edo gaitasun tekniko edo profesionala, edo, hala badagokio,

enpresa-sailkapena egiaztatzen duten agiriak.

Eskakizunen konkurrentzia aztertzeko unerik egokiena proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan izango da.

b) Behin betiko bermea

Bermea emateko erak.- Bermea SPKLTBko 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan eman ahal izango da.

BOSek eskubidea izango du abalen sinaduraren legitimazioa eskatzeko.

Enpresaburuaren aldi baterako elkarrekin dagokienez, partaidetza duten enpresen sozietate-izenak eta IFZak zehaztu beharko dituzte. Halaber, partaidetza dutenen artean, enpresa batek edo gehiagok eratu ahalko dituzte bermeak, baldin eta eskatzen den zenbateko guztia batzen bada eta aldi baterako elkarteko kide guztiak solidarioki bermatzen badira.

c) Zerga betebeharrak beteta dituela esaten duen baiezkoko ziurtagiria foru ogasuneko bulegoek emana, edo edo, haren ordean, Zergen Administrazioarako Estatuko Agentziak emandakoa.

d) Ziurtagiri positiboa Gizarte Segurantzarekiko betebeharren aldetik egunean egotea egiaztatzeko, edo, bestela, dagokion mutuako alta.

e) Esleipenduna enpresaburuaren aldi baterako elkarrekin bada, elkarrekin horren formalizazioaren eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Era berean, elkarteko kide bakoitzak foru-ogasun(ar)en nahiz Gizarte Segurantzaren ziurtagiri positiboa aurkeztuko du, bai eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergari dagozkion agiriak ere.

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo bost egun baliodunen barruan esleitu beharko du kontratua. Kontratazio-organoak ebazpen arrazoitu baten bidez erabakiko du esleipena.

Lizitatuak guztiei emango zaie esleipenaren berri, eta BOSen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

21. FORMALIZAZIOA.

Kontratua formalizazioarekin gauzatuko da.



Kontratua lizitazioaren baldintzekin zehatz-mehatz bat datorren agiri batean formalizatu beharko da, eta agiri hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartu ahal izateko. Alabaina, kontratistak eskatu ahalko du kontratua eskritura publikoan jaso dadila; haren konturakoak izango dira horren gastuak.

Ezingo da inola ere sartu kontratua formalizatzeko agirian esleipenaren baldintzak aldatzen dituen klausularik.

Kontratistari leporatu dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua formalizatu ezean, BOSek kontratua suntsitzea erabaki ahal izango du, kalte-ordainen ordainketa eskatuz, betiere, interesdunari entzun ondoren.

Kontratuaren betearazpena ez da hasiko aurretik formalizatu gabe, txostenaren tramitazioaren izaera presazkoa edo larrialdikoa ez baldin bada behintzat.

22. KONTRATUA ALDATZEA.

Behin kontratua hobetu eta gero, kontratazio organoak interes publikoko arrazoiak daudelako edo ustekabeak gainditzeko aldatu ahal izango du kontratua. Horretarako, hauen beharizana behar den moduan justifikatu beharko du txostenean.

Kontratuarekin bete behar diren beharizanak egoki gogobetetzeko, lurralde esparrua edo ekintza eremua zabaltzea eragingo duten helburu berriei erantzuteko aldatu ahal izango da kontratua.

Aldaketa horiek ezingo diete eragin kontratuaren oinarrizko baldintzei. SPKLTBren 305. artikulua dioenari men egingo zaio bereziki.

23. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA.

Plegu honen oinarriaren gainean egiten den kontratuak izaera pribatua izango du.

Prestaketa eta esleipenari dagokienez, kontratua plegu honetan idatzitako klausulen arabera gidatuko da, edo, bestela, hauen bidez:

- BOSen kontrataziorako barne-jarraibideak.
- SPKLTBn horretarako ezarritako arauak.



- Hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan (hemendik aurrera, 817/2009 ED) ezarritako arauen arabera gidatuko da, botere esleitzzailea duten eta administrazio publikoa ez diren sektore publikoko erakundeek adostutako eta araudi harmonizaturik ez duten kontratuen kasuan.
- Betiere, SPKLTBn aurreikusitakoarekin bat datorrenean, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuari jarraiki.

Bere eraginei eta ebazpenari dagokienez, kontratua plegu honetan idatzitako klausulen eta bertako eskubide pribatuko arauen arabera gidatuko da.

Horrez gain, SPKLTB, 817/2009 ED eta 1098/2001 Errege Dekretua aplikagarriak izango dira, baldintza-giri honek aipatutako araudi testuei erreferentzia egiten dien guztian.

Ordena jurisdikzional zibilak aldean artean sor daitezkeen liskarrak ebazteko eskumena izango du, kontratu pribatuen efektu, betearazpen eta iraungipenari dagokienez. Ordena jurisdikzionalak eskumena izango du kontratu honen prestaketari eta esleipenari eragiten dieten auzien berri izateko.

Hala ere, alderdiek beraien auziak arbitrajearen pean jartzea adostu dezakete, indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat etorritz.

Bilbo, 2017ko maiatzaren 19a

1. ERANSKINA

ZEHAZTASUN TEKNIKOAK.

1.- XEDEA.

BOSen garbiketa zerbitzurako egingo den kontratuaren gutxieneko xehetasun teknikoen ezarpenak osatzen du xedea.

Garbiketa zerbitzuak ukitutako instalazioen higieanean kalitate hobezina lortzeko beharrezkoak diren merkatuko teknika eta tresna guztiak barne hartuko ditu.

Ingurumenarekin eta lan-osasunarekin, hala garbiketa zerbitzuko langileena, nola BOSeko langileena eta gune horretako erabiltzaileena, errespetuzkoagoa den metodo, praktika eta produktuekin gauzatuko da zerbitzua, eta, besteak beste, hondakinen kudeaketa egokia egingo da, dagoeneko funtzionamenduan dagoen gaikako segregazio-sistema mantenduta.

2.- JARDUKETA ESPARRUA.

Zerbitzuak BOSen bulego eta instalazioetako hurrengo guneak hartzen ditu barne:

Solairua	Barne hartzen dituen guneak
Behea	Artxiboa, batzar aretoa, ikasketa gelak, zuzendari/bakarleri gonbidatuaren aldagela, zuzendari titularraren aldagela, pasilloak eta eskailerak.
Lehenengoa	Bulegoak, biltegia, pasilloak, halla eta harrera-lekua, komuna eta emakumezkoen eta gizonezkoen aldagela. (Azken bi horiek Euskalduna gunean)
Bosgarrena	Entsegu aretoa, gizonezkoen komuna, emakumezkoen komuna, ondoko biltegiak, atsedan aretoa eta bi ikasgela.

Garbiketaren jarduketa esparruak aipatutako guneen edukia eta edukitzailea hartzen ditu barne.

3.- ZERBITZU ARRUNTAREN BETEKIZUNAK.

Kontratu honen xede den Garbiketa Zerbitzuak ondoren zehazten diren betekizunak izango ditu:

- Garbiketa.

- Kanpoko eta barruko ateak irekitzea eta ixtea.
- Kontratu honen helburu diren instalazioen argiak itzaltzea eta piztea.
- Garbiketa materiala zaintzea eta ordenatzea.
- Poliziari, anbulantziei, suhiltzaileei eta antzekoei ohartaraztea beharrezkoa duten jazoeretan.
- Eguneko, hilabeteko eta urteko kontrolerako koadroa duen garbiketa txostena aurkeztea, adierazitako gune ezberdinak aintzat hartuz. Halaber, eguneroko txostenak egitea, jazoerarik balego.
- Esleipendunak BOSi jakinarazi beharko dio zomorro edo izurriteak dauden, garbiketa zerbitzua egitean antzeman baldin badira.
- Beharrezkoa duten gune guztiak sistema egokietatik desinfektatuko dira.
- Kontratututako lanen antzekoak diren lan guztiak.

4.- ZERBITZU ARRUNTAREN MAIZTASUNA.

Garbiketa zerbitzu hauen maiztasuna eta xehetasunak ez dira oso zehatzak, ezta mugatzaileak ere, eta zerbitzuak gauzatzeko maiztasuna horiek garbitzeko benetako beharrak baldintzatuko du. Hala ere, enpresa esleipenduna derrigortuta egongo da beste edozein zerbitzu osagarri ematera (goian aipatutakoen barruan), zerbitzu mota hauetan ahalik eta kalitate maila handiena lortzeko.

Lana	Egunero	Astero	Hamabostean behin	Hilera	Hiru hilerik behin	Sei hilerik behin	Urtero
Zoruak garbitu eta mopa pasatzea, zola mota bakoitzerako tresna egokiak erabiliz.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Eskuz garbitzea.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Altzariak, ekipo informatikoak eta telefonoak garbitzea.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Paperontziak hustea.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Altzariak ordenatzea.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Zaborra edukiontzietara eramatea.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Paper/kartoiaren eta birziklatzeko ontzien gaikako bilketa. BOSen egoitzan lagatako material horien gaikako bilketa egingo da, eta Euskalduna Jauregian xede horretarako jarritako edukiontzietara eramango dira.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Zerbitzuaren irudiari kalte egiten dioten bilgarriak, zaborrak eta objektuak kendu eta BOSek horretarako jarritako hondakindegi	<input checked="" type="checkbox"/>						

kontrolatura edo lekura eramango dira.							
Kontratuaren xede diren guneetan edozein pintada edo "graffiti" ezabatzea. Horiek antzeman eta berehala egingo da garbiketa, batez ere, komun barruko arotzerietan.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Iragarki-kartel, pegatina, propaganda edo antzekoak kentzea, baimenik gabeko lekuetan jarrita egonez gero. . Horiek antzeman eta berehala kenduko dira.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Komunak garbitu eta desinfektatzea (ispiluak, bainuontziak, komunak, dutxak, konketak, eskutokiak...), bai eta zoruak ekortu eta garbitzea ere.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Komuneko papera, eskuko xaboia eta eskuak lehertzeko papera komunetan berriro jartzea.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Kristaletatik arrastoak kentzea.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Eskailerak eta pasilloak garbitzea.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Alfonbrak eta lanpasak garbitzea.	<input checked="" type="checkbox"/>						
Eskailerak eta pasilloak urarekin garbitzea.		<input checked="" type="checkbox"/>					
Kutxatilatagietako hautsa kentzea.		<input checked="" type="checkbox"/>					
Ekipo informatikoak eta telefonoak sakon garbitzea.			<input checked="" type="checkbox"/>				
Komunetako azulejuak garbitzea.				<input checked="" type="checkbox"/>			
Kanilak garbitzea.				<input checked="" type="checkbox"/>			
Artxiboaren (artxibo mugikorra) zorua ekortu eta urez garbitzea.				<input checked="" type="checkbox"/>			
Entsegu aretoetako hormak eta sabaiak (zurezkoak) garbitzea.				<input checked="" type="checkbox"/>			
Iristeko errazak diren kristalak garbitzea.					<input checked="" type="checkbox"/>		
Gortinak, estoreak eta antzekoak garbitzea.						<input checked="" type="checkbox"/>	
Iristeko zailak diren kristalak eta markoak garbitzea. (Horretarako, bitarteko egokiak erabiliko dira, eta behar bezala prestatutako langile gaituek/tituludunek egingo dute).						<input checked="" type="checkbox"/>	
Artxiboa sakon garbitzea (artxibo mugikorra, apalak, karpetak, liburuak, kutxak...).							<input checked="" type="checkbox"/>
Argi-puntuak garbitzea.							<input checked="" type="checkbox"/>
Terrazo zoruak tratatzea.							<input checked="" type="checkbox"/>
Zorua desugertu eta distiraraztea.							<input checked="" type="checkbox"/>
Lana	Egunero	Astero	Hamaboste an behin	Hilera	Hiru hilerik behin	Sei hilerik behin	Urtero

5.- ZERBITZU ARRUNTAREN ORDUTEGIAK.



BOSen eguneroko garbiketa-lan nagusia egiteko ordutegia langile-beharrizanen, publikoaren eta erabiltzaileen araberakoa izango da, eta esleipendunaren eta BOSen artean adostuko da.

Oinarrizko arau gisa, ezingo da 08:00etako muga gainditu gune lehorrak nahiz hezeak (aldagelak eta bainugelak) garbitzeko, jardunaldia hasteko orduan erabiltzeko moduan egon daitezen.

Garbiketa zerbitzuko langileen sarrera eta irteera orduak aldatu egin ahal izango dira BOSen beharrianetara egokitzeko.

6- EZOHIKO ZERBITZUAK.

Enpresa esleipendunak sortzen diren larrialdi egoerak konpontzen laguntzeko konpromisoa hartzen du, modu ezohikoan. (Eraikina urak hartzen badu, etab.).

7.- BITARTEKO MATERIALAK ETA GARBIKETA PRODUKTUAK.

Garbiketa-lanak betearazteko bitarteko materialak (mekanikoak, makineria, osagarriak, tresnak, lanabesa, etab.) eta garbiketa produktuak egokiak izan beharko dira, eta homologatuta egon beharko dute. Era berean, segurtasun-neurri egokiekin erabili beharko dira, eta esleipendunak berak ekarri beharko ditu, baita erabiltzaileen higienarako kontsumigarriak ere.

Bitarteko material horiek erabiltzeko prestakuntza egokia eta ikaskuntza esleipendunaren kontura izango dira, baita erabiliko diren garbiketa-produktuak erabiltzeko jarraibideen ikaskuntza ere.

Hauek izango dira esleipendunak, kontratatutako zerbitzuaren barruan, erabiltzaileen higienarako ekarri beharko dituen produktuak: eskuko xaboia eta eskuak lehertzeko papera eta, hondakinak jasotzeari dagokionez, zabor-poltsak. Obligazioa izango du produktu horien kopuru nahikoa edukitzeko, instalazioen barruan behar bezala biltegitatuta, beharrezkoa denean ordeztu daitezen, eta BOSeko langileek ere lan hori egin ahal izan dezaten hala dagokion kasuetan. Zentroan dauden biltegitan gorde beharreko produktuaren gutxieneko kopurua hilabetean kontsumitzen dena izango da.

Lizitatzailak kontratuak dirauen bitartean erabiliko dituen garbiketa-produktuen zerrenda bat aurkeztu beharko du, horien fitxa tekniko eta segurtasun-fitxekin batera. Produktu horiek ingurumenarekin errespetuzkoak eta toxikotasun baxukoak izan beharko dute. Edozein kasutan, erabili beharreko materialek ez



dute kutsadurarik eragingo ingurumenean, ez eta hondakin uretan ere, indarrean dagoen legeari jarraiki.

Hondakin propioak: enpresa esleipendunak jardueraren ondorioz sortzen diren hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, esparru honetan indarrean dagoen legeriak ezarri bezala. Produktuen ontzi guztiak behar bezala itxita iritsi beharko dira BOSera, eta ezingo dira aldeztu aurretik maneiatu. Enpresa esleipendunak materialak behar bezala gordetzeko eta, hala badagokio, botatzeko arduratu hartuko du.

8.- BITARTEKOAK ETA SEGURTASUN-NEURRIAK.

Esleipendunak BOSeko instalazioen erabiltzaileen segurtasuna eta bere langileen segurtasuna hartu beharko ditu kontuan. Horregatik, esleipendunaren langileak lanean ari diren bakoitzean, jarduketa-gunea behar bezala seinalatzeko beharko da, martxan dagoen lanaren berezitasunak zehaztuta, adibidez, zorua heze badago, kartelak jarri beharko dira, eta bitarteko osagarriak badago, segurtasun-gunea mugatu beharko da.

Bertan jardun behar duten langileek segurtasun neurri eta bitarteko guztiak, bereziak eta egokiak, darabiltzatela hartuko da kontuan bereziki. Batez ere, agindutako garbiketa-lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren babes-ekipo individual edo kolektiboak. Espainiako legedian zehazten diren segurtasun-eta prebentzio-neurri guztiak betetzea derrigorra izango da. Bitarteko edo babes egokiak erabili ezean, arau-haustetza hartuko da, ondorio guztietarako.

9.- ESLEIPENDUNA.

Enpresa esleipenduna arduratuko da kontratazioaren xede den zerbitzuaren prestazioaz. Enpresa horrek beharrezkoak diren materialak eta langileak izan beharko ditu, prestazioa gauzatu ahal izateko.

Esleipena duen enpresak ahalduen bat edo gehiago izendatu beharko ditu, zerbitzuak eskatzen duen guztietan BOS ordezkatu dezaten. Ahalduen botere nahikoa izango du behar diren erabakiak hartzeko, eta erabakiotan ezingo du eragin erabakitze gaitasunik ezak, ez legalki ez forma aldetik. Ahalduen izango da kontratuari dagozkion gaietarako baliozko solaskidea.

10.- LARRIALDIAK.



Esleipena duen enpresak larrialdietarako dei zerbitzua izango du, eta uneoro izango da BOSekin harremanetan.

Enpresari dagozkion larrialdien edo antzeko beste arrazoi batzuen ondorioz esleipendunak pentsatzen badu ezingo duela zerbitzua ezarritako baldintzetan eskaini, derrigortuta egongo da BOSi berehala jakinaraztera, horrek behar diren neurriak hartu ditzan, erabaki horrek eragin ditzakeen kalteak saihesteko edo gutxitzeko. Neurri horiek eragindako gastuak esleipendunak ordainduko ditu, izan daitezkeen zigorretan edo beherapenetan inolako aldaketarik eragin gabe.

Baldintza hauetakoren batean esleipendunak hartzen baditu kalteak saihesteko neurriak, ez da zigorrik izango eta egin gabeko lanei dagokien diru-kopurua baino ez da kenduko ordaindu beharrekotik.

11.- LANGILEEI DAGOZKIENAK.

- Esleipendunak eguneroko lanak zuzendu eta antolatu beharko ditu. Horretarako, behar besteko eta sailkapen profesional egokiko eskulan zuzena izango du, baita lantalde horiek gainbegiratzeko langileak ere; azken horiek garbiketa-zerbitzuaren prestazioaren azken emaitza kontrolatu, eta euren ardurapean dauden langileen jarraipena eta tutorizazioa egin beharko dute.
- Kontratuan agertzen den zerbitzua eskaintzen duten langile guztiak izango dira esleipena duen enpresakoak, eta aipatutako langile hauen eta BOSen artean ez da inolako harreman juridikorik izango, ez kontratua indarrean dagoen denboran, ez gero.
- Esleipena duen enpresak langile guztiak izan beharko ditu Gizarte Segurantzan behar den moduan aseguraturuta.
- **Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du gutxienez honako bitarteko materialak kontratura atxikitzeko: Bulego bat Bilbon edo inguru hurbilean;** bertan egongo da 9. xehetasun teknikoan adierazitako eskumendunaren (edo eskumendunen) lanpostua. Edozein kasutan, behar beste lan-saio eta bilera egingo dira BOSekin batera, eginbeharra modu ahalik eta egokienean bete dezan. Horretarako, enpresako langileek BOSen bulegoetara joan beharko dute, hala dagokionean.
Konpromiso horrek kontratuaren funtsezko betebeharrak izango du, SPKLTBn aurreikusitako ondorioetarako; beraz, hori hautsiz gero, BOSek, bere borondatez, bertan behera utzi ahal izango du kontratua.

- Kontratako langileen alten eta bajen jakinaren ganean egon beharko du BOSek. Horretarako, hauen egiaztagirien kopiak bidaliko zaizkio fax bidez edo posta elektronikoz.
- **BOSen instalazioetan zerbitzua ematen duten langileen Gizarte Segurantzako altaren egoerari buruzko dokumentazioa igorri beharko du esleipendunak hilero.**
- Azaldutako zerbitzuak eskaintzen dituzten langile guztiek egon beharko dute identifikatuta, eta enpresa esleipendunaren ardura izango da langileei uniformeak jartzea zerbitzua betetzen ari diren orduetan. Enpresak emandako identifikaziorako txartela ere izan beharko dute ikusteko lekuan jarrita. Halaber, enpresa esleipendunak beharrezkoak diren tresnez eta norbera babesteko elementuez (NBE) hornituko ditu bere langileak, kontratatutako zerbitzuak behar bezala garatzeko.
- Esleipenduna izango da langileen txukuntasun ezaren eta jantzien errespetu eta uniformetasun ezaren erantzulea, bai eta kontratupeko langile horiek BOSeko eta, oro har, Euskalduna Jauregiko langileekin duten deskortesia edo tratu txarraren erantzulea ere.
- LANGILEEN ALDAKETA: enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du albo batean uzteko euren lana behar den zuzentasunarekin, gaitasun teknikoarekin eta eraginkortasunarekin egiten ez duten langileak edo lanean arreta gutxi jartzen dutenak.
- ZERBITZUEN IKUSKARITZA: zerbitzuak esleipena duen enpresak ikuskatuko ditu hilean behin gutxienez. Ikuskaritza hori idatziz jaso beharko dute, eta BOSek izendatzen duen ordezkariari eman beharko diote kopia bat.
- GREBA: grebarik balego, esleipena duen enpresak gutxienerako zerbitzuak bermatu beharko lituzke, eta hauek indarrean dagoen araudiaren arabera negoziatu beharko ditu, zeintzuk diren erabaki aurretik. Greba sasoietan, adostutako gutxienerako zerbitzuei dagokien dirua bakarrik ordainduko da.
- KALTEEN ORDAINA: Esleipena duen enpresako langileek egoitzan, altzarrietan, instalazioetan edo BOSen zein Auditoriumekoak diren bestelako jabetzetan arduragabekeriaz, eraginkortasun faltaz edo atzipenez egiten dituzten kalteak esleipena duen enpresak ordainduko ditu.

12.- GUTXIENKO ESKAKIZUNAK.

Administrazio Klausula Berezietan aurreikusitakoaz gain, lizitatzeko asmoa dutenek honako gutxienerako



baldintzak bete beharko dituzte:

- Lizitazio honetatik eratorritako prestazioak gauzatzean, indarrean dagoen araudi teknikoa eta lan-osasunekoa bete beharko da, baita erabiliko diren produktu edo makinaren eta kontratatutako langileen ezaugarriak direla-eta aplikagarriak diren araudiak ere.

13.- ASEGURUA.

Enpresa kontratistak bere izenean izan beharko du ezbeharretarako aseguru poliza bat kontratuak indarrean dirauen bitartean, gutxienez, **300.000 euroko** zenbatekoan, kontratatutako zerbitzuak gauzatzetik sortzen zaizkion kontratu erantzukizunak eta erantzukizun zibilak betetzeko.

2. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.

Nik, jaunak/andreak, helbidea, PK, telefonoa eta NAN ditudanak, nire ahalmen juridiko eta jarduteko ahalmen osoa izanik, eta nire izenean jardunez (edo honen ordezkartzan:,helbidea, PK, telefonoa eta NAN edo IFZ -pertsona fisikoa edo juridikoa-), BOSerako GARBIKETA ZERBITZUA kontratatzeko zabaldu den lizitazioaren jakinaren gainean,

HAUXE ADIERAZTEN DUT NEURE ARDURAPEAN:

1) Hitz ematen dut **ohiko garbiketa zerbitzu** hau burutuko dudala, eta prezioa hau izango dela:

	Prezioa, BEZ gabe	BEZ	Prezioa, BEZ barne
Lehenengo urtea	€/urte		€/urte
Bigarren urtea	€/urte		€/urte
Hirugarren urtea	€/urte		€/urte
Laugarren urtea	€/urte		€/urte
Ototara	€		€

2) BOSek eskatzen dituen **ezohiko garbiketa zerbitzuak** emateko konpromisoa hartzen dut, hurrengo aleko prezioaren arabera:

	Prezioa, BEZ gabe	BEZ	Prezioa, BEZ barne
Ezohiko garbiketa zerbitzuak	€/ordu		€/ordu

Prezio horrek kontzeptu guztiak barruan hartzen dituela ulertzen da, edozein zerga-mailatako zergak, gastuak, tasak eta arielak, eta kontratistaren industria-onura barne.

....., 2017koaren(a)

Iz.:

Enpresaren zigilua

3. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA.

Nik, jaunak/andreak, NAN
zenbakidunak, nire izenean edo enpresaren (helbidea:, eta
IFK:) ordezkari gisa, ,

ERANTZUKIZUNPEKO HONAKO ADIERAZPENA EGITEN DUT:

- 1) Nik edo ordezkatzan dudanak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikularekin bat etorritik, ez daukagu kontratatze inolako debekurik. Berariaz ulertzen dugu inguruabarren adierazpen honetan indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta ditugula. Ezaugarri horiek justifikatzeko egiaztagiria kontratua formalizatu aurretik aurkezteko konpromisoa hartzen dut, esleipena nire izenean egiten bada.
- 2) Eskaintza ekonomikoa osatzean, kontuan hartu dira gizarte, lan eta ingurumen alorrean aplikagarriak diren araudiak Europar Batasunaren zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan eta ingurumen, gizarte eta lan alorrean Estatu lotzen duten nazioarteko zuzenbideko xedapenetan, eta kontratu hau betearazten parte hartzen duten langileei aplikagarriak zaizkien lan-eskubideak bermatuko dira.
- 3) Esleipendun izatekotan, aplikagarria den hitzarmena jakinaraziko zaie kontratuaren xedea den jardura gauzatzen duten langileei, kontratu hau betearazteko baldintza berezi gisa; era berean, kontratua esleitu ondoren langile horiei modu eraginkorrean aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruzko behar besteko informazioa emango zaie.
- 4) Kontratua betearaziko duten langileei indarrean dagoen eta kontratu hau arautzen duen azken hitzarmen kolektiboak (enpresakoa, sektorekoa edo lurraldekoa, dagokionaren arabera) ezarritako baldintzak aplikatzeko obligazioa bere gain hartuko du enpresak, betearazpeneko baldintza berezi gisa; hori ez da eragozpena izango hitzarmen horretan xedatutakoaren gaineko hobekuntzak egiteko. Hain zuzen ere, aplikagarria den hitzarmen kolektiboan jasotako ordainsaria ordaintzeko obligazioa hartzen du enpresak bere gain, langile bakoitzari dagokion sailkapen profesionalaren arabera, eta, kontratua esleitu ondoren, ordainsaria ezingo da hori baino txikiagoa izan.

....., 2017koaren(a)

Iz.:



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

4. ERANSKINA

KONTRATAREN ONDORIOZ SUBROGATU BEHARREKO LANGILEAK.

Gaur egun zerbitzua ematen duen enpresa: Lantegi Batuak Fundazioa

Hitzarmen kolektibo aplikagarria: Berezko enpresa hitzarmena (96. BAO. Ostirala, 2016ko maiatzaren 20a)

	Sailkapena	Antzintasuna	Kontratu mota	Eguneroko lanaldia	Urteko ordainsari gordina, lanaldi osoarekin
1	C-3	2003-06-11	Mugagabea	%21,50	20.339,43 €
2	D-AS 100%	2009-06-29	Mugagabea	%21,50	10.106,32 €
3	D-AS 100%	2007-02-19	Mugagabea	%21,50	10.553,89 €
4	D-3	2010-10-25	Mugagabea	%12,90	14.460,19 €
5	D-2	2002-07-02	Obra edo zerbitzu zehatza	%26,67	23.668,28 €